

## LEZO ARRISKUAN

Donostialdea-Bidasoa Beheko eremu funtzionalaren lurraldearen zatiko planak (LZP) orokorki gure bailaran eta zehazki Lezoko herrian dituen eraginengatik kezkatuta gauden lezoarrok, zera adierazi nahi dugu:

- Donostialdea-Bidasoa Beheko LZP Eusko Jaurlaritzaren bulegoeta osatu den plan bat da, inguruko udalen eta are gutxiago bertako herritarren iritzia kontuan hartu gabe egina, nahiz eta memorian (DOC. A 1.88) aipatzen den, LZPren tramitazio prozesua herritarren parte-hartzearekin eta eragile sozial eta sektorialen iritzia kontrastatu eta kontuan hartuz egin behar dela.
- Jaurlaritzak LZPri hasierako onarpena eman ondoren, kontraste soziala bideratzeko bide bakarra, derrigorrezkoa den informazio publikorako epea izan da. Herritaren informazio gabezia orokorrak talka egiten du planak duen garrantziarekin, hain zuzen, plan horrek guztion bizi kalitatean eragina duelako, lurraldea zein komunikatearen ondasunak sakrifikatuz.
- LZP garapen-zalekeria oinarri duen plan zaharkitua da. Laurogeita hamarrek hamarkadan hasi ziren martxan jarri nahian; ondoren, 2003 urtean, 2011n eta orain, 2015ean, berriro. 2011ko alegazioak aurkezteko epean, aurkako 20.000 alegazio baino gehiago aurkeztu ziren, 8.436 Lezo-Gaintxurizketako plataforma logisikoaren eta intermodalaren aurkakoak, honako arrazoi hauetan oinarrituak: Lur antolaketa eta ekonomian dituen eraginak, ingurugiroari dagozkionak, eragin sozialak eta proiektuaren behararen justifikazio eza. (Ikus alegazioaren idatzi gehigarria.)
- Errekalde bailaran etxebizitza eta baserri ugari desagerraraziko lirateke, eta baita Iturringo industria eremua ere.
- Gaintxurizketako nekazal lurrek jasango luketen inpaktua bereziki bortitza eta larria da. Nekazal lur horiek estrategikoki balio gorena dute sektorearentzat, gero eta urriagoa den baliabide diren heinean. Horiek suntsitzeak oztopatu egingo luke Donostialdea-Bidasoa Beheko kontsumitzaileak elikagaiez hornitzen dituen bertako eta kalitatezko nekazaritza ekologiko hasi berriaren garapena.
- Dagoeneko lau urte baino gehiago pasa dira herritarrek, zenbait elkarte eta alderdi politikok 8.436 alegazio horiek aurkeztu zituztenetik, eta gaur egun erantzunik gabe jarraitzen dute. Orain proiektu zaharra berria balitz bezala aurkezten digute, eta berriro ekin diote tramitazioari.
- Plataforma logistikokoaren beharra eta erabilera oraindik ere arrazoitu gabe daudela baieztatzen dugu. Ez dute eragin positibo bakarra ere aipatzen, ez eta haren bideragarritasun ekonomikorik edota eragin kaltegarrikerik ere. Begi-bistakoa da, lurren okupazio handiagatik beste herriek nahi ez dituzten jarduerak Lezora ekarri nahi dituztela.
- Lezoko Udalak bere erabakitze ahalmena galduko luke eta horrek kezkatu egiten gaitu. Izan ere, LZP loteslea da eta udalen erabakien gainera dago (DOC A. memoria II.67). LZP onartu ondoren, Lezoko Udalak Eusko Jaurlaritzaren eta beste erakundeen esku utziko lituzke bere lurren antolaketan dituen ahalmenak.

Aipatutako arrazoiengatik, Lezoko bizilagun garenok LZPren lanketan herritarren parte-hartze eza salatu nahi dugu, eta Lezoko Udalari zera eskatzen diogu:

1. Prozesu bat martxan jartzea, benetako informazioa, eztabaida eta parte-hartze sozialerako aukera egon dadin, eta bizi garen lurraldearen antolaketa ereduari buruz erabakitze aukera izan dezagun.
2. Lezoko Udalak ez ditzala utzi beste erakundeen esku herriaren etorkizunerako estrategikoa den eremuaren gaineko erabakiak; defenda dezala bere lurraldea antolatzeko duen eskumena; eta egin ditzala beharrezko diren ekimenak alegazioak aurkeztu eta horiek kontuan hartuak izan daitezzen.